Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko irailaren 26a, asteartea — 186 — Martes, a 26 de septiembre de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ERRENTERIAKO UDALA

### Kultura

*Iragarkia*

Udalbatzak 2023ko maiatzak 24ean, ondorengo ordenantza behin behingoz onartu zuen: Errenteriako Udaleko Herriko jaietan omenaldi sariak emateari buruzuko ordenantza (Espedientea 2022ZUA00009).

Aipatu dokumentuaren onarpena jendaurrean jarri zen 2023ko ekainaren 2ko 106 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Erakustaldi publikoan ez da ekarpenik edota erreklamaziorik aurkeztu, beraz, 7/1985 legearen 49. artikuluaren arabera ordenantza hori behin betikoz onarturik geratzen da.

Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, onartutako ordenantzaren testu oso-osoa argitaratzen da eta indarrean sartuko da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Oro har guztiek jakin dezaten eta eraginak izan ditzan argitaratzen dut. Era berean, jakinarazten da akordio honek administrazioaren bidea agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

Hau da onartu den araudiaren testua:

*Herriko jaietan omenaldi sariak emateari buruzko ordenantza arautzailea.*

ARRAZOI-AZALPENA

Herriko Jaietan Omenaldi sariak emateari buruzko ordenantza arautzailea, Errenteriako Udalak urtero herriko jaietan ematen dituen ohorezko omenaldi sarien prozedura arautzen duen araua da.

2006. urtean «Herriko Jaietan Omenaldi sariak emateari buruzko ordenantza arautzailea» onartu zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2006ko uztailaren 4, 126. zenbakia.

Proposatzen den ordenantza honek aurrekoa indargabetuko du eta hura ordezkatu.

Hori horrela, hauxe da proposatzen den ordenantza arautzailea:

*1. artikulua.*

Udalak urtero herriko jaietan ematen duen omenaldi saria arautzea da Ordenantza honen xedea, sari horri esker, omendutako pertsona edo erakundea herriko jaietan erreferentea izaten da.

## AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

### Cultura

*Anuncio*

El Pleno en sesión de fecha 24 de mayo de 2023 acordó aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de la concesión de distinciones en las fiestas patronales del Ayuntamiento de Errenteria de (Expediente 2022ZUA00009).

El anuncio del referido acuerdo fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 106 de fecha 2 de junio de 2023.

En dicho período de información pública no se han presentado aportaciones ni reclamaciones, por tanto, de conformidad con el artículo 49 de la Ley 7/1985, dicha ordenanza queda aprobada definitivamente.

Por dicho motivo, y a los efectos previstos en el art. 70.2.º de la Ley 7/1985 del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la ordenanza, señalando que la misma entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Lo que se publica para general su conocimiento y efectos, señalando que el presente acuerdo agota la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se tenga por conveniente.

El texto de la normativa aprobada es el siguiente:

*Ordenanza reguladora de la concesión de distinciones en las fiestas patronales.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ordenanza reguladora de la Concesión de Distinciones en las Fiestas Patronales es la norma que regula el procedimiento de concesión de las distinciones honoríficas que anualmente otorga el Ayuntamiento de Errenteria con motivo de las fiestas patronales.

En el año 2006 se aprobó la «Ordenanza reguladora de la Concesión de Distinciones en las Fiestas Patronales», Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 126, de 4 de julio de 2006.

La ordenanza que se propone derogará y sustituirá a la anterior.

Por todo ello, se propone la siguiente ordenanza:

*Artículo 1.*

El objeto de la presente ordenanza es regular la concesión de la distinción honorífica que anualmente otorga el Ayuntamiento de Errenteria con motivo de las fiestas patronales, distinción por la cual la persona o entidad homenajeada se convierte en referente en las fiestas patronales.

EK\CV GAO-I-2023-06875

Omenaldi sariak pertsona fisiko edo juridikoa saritzea du helburu, herrian eguneroko lanaren bidez, ibilbide profesionalaren bidez, edo beste alderdiren baten bidez, udalerriari modu aktiboan eta nabarmenean lagundu diolako edo Errenteriaren irudi positibo eta erakargarria bat finkatzeaz gain, Errenteriak egun duen aniztasun linguistiko-kulturalaren berri ematen lagundu duelako.

Era berean, gizonei eta emakumeei ematen zaizkien omenaldi sariak bidezkoak izango dira eta ez dituzte rol sexistarik erreproduzituko.

*2. artikulua.*

Omendua aukeratua izateak honakoa dakar:

1. Udal korporazioak alkatea buru duela harrera egingo dio, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz, omenduak egindako hautuaren arabera.

2. Errenteriako Udalak Madalenetako programaren baitan aitortza ekitaldia antolatuko dio eta bertan oroigarri bat eskainiko dio, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzita. Ekitaldian bertan dauden herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko ditu Udalak.

3. Herriko jaiei hasiera emango dien txupinazoa jaurtitzeko ohorea izango du eta Udalak jaietan antolatutako ekitaldi instituzionaletan ere leku berezi bat gordeko dio, bertaratu nahi izanez gero.

4. Goraipamen hori ohorezkoa izango da eta ez du inoiz eskubide ekonomiko edo administratiborik sortuko.

*3. artikulua.*

Honako hauek aurkeztu ahal izango dituzte omendu izateko hautagaiak –bakoitzeko hautagaitza bat–.

— Herritar norbanakoak:

Aurkezteko unean Herrian erroldatutakoak.

— Eragile/elkarteak:

Dirulaguntza zuzena jasotzen dutenak Udaletik, egoitza herrian dutenak edota Herriaren onurakoak eta diru irabaztea xede ez duten elkarteen erregistroan.

— Alderdi politikoak:

Udalean ordezkaritza dutenak.

*4. artikulua.*

Ezin izango dira omendu izateko hautagai izan:

— Fikziozko pertsonaiak.

— Lehen ere omenduak izandakoak.

— Pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta haien helburuak, jarrerak edo jarduerak giza eskubideen aurkakoak badira edo giza eskubideak urratzen badituzte.

— Sexuan oinarrituta diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan.

— Pertsona juridikoak, baldin eta beren kideak hautatzeko edo parte hartze prozesuetan sexuagatik diskriminatzen badituzte.

— Genero-indarkeriaren, ustelkeriaren, odol-delituen edo ekintza terroristen ondorioz kondenatutako pertsona fisikoak, baita arestian aipatutako delituen inguruko prozesu judizialetan daudenak ere.

La distinción honorífica tiene el fin de galardonar a aquella persona física o jurídica, que a través de su trabajo diario en el municipio, su trayectoria profesional, o alguna otra faceta, haya contribuido activamente y de forma notoria, o porque, además de consolidar una imagen positiva y atractiva de Errenteria, haya contribuido a dar a conocer la actual diversidad lingüístico-cultural de Errenteria.

Asimismo, la distinción honorífica a hombres y mujeres será equitativa y no reproducirá roles sexistas.

*Artículo 2.*

La elección como persona o entidad homenajeada implica lo siguiente:

1. La Corporación Municipal, presidida por la alcaldesa o alcalde, recibirá a la homenajeada en euskera o euskera y castellano, según su opción lingüística.

2. El Ayuntamiento de Errenteria organizará dentro del programa de Madalenas un acto de reconocimiento a la persona o entidad homenajeada, en el que le hará entrega de un obsequio distintivo, redactado en euskera o en euskera y castellano. Además el Ayuntamiento garantizará los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía presente en el acto.

3. La persona o entidad homenajeada tendrá el honor de lanzar el chupinazo que da inicio a las fiestas patronales. Asimismo, tendrá un espacio reservado y destacado en todos aquellos actos institucionales programados por el Ayuntamiento durante el transcurso de las fiestas a los que desee acudir.

4. Esta distinción tiene carácter exclusivamente honorífico, sin que pueda conferir derecho administrativo o económico alguno.

*Artículo 3.*

Podrán presentar candidaturas al homenaje –una candidatura cada uno– los siguientes:

— Ciudadanas y ciudadanos particulares:

Con padrón en el municipio en el momento de presentar la candidatura.

— Agentes / asociaciones:

Beneficiarios de subvención directa del Ayuntamiento, con sede en el municipio o inscritos en el Registro de Asociaciones sin ánimo de lucro de interés Municipal.

— Partidos políticos:

Partidos con representación en el Ayuntamiento.

*Artículo 4.*

No podrán optar a la distinción:

— Personajes de ficción.

— Quienes hayan recibido el homenaje anteriormente.

— Personas físicas o jurídicas cuyos fines, actitudes o actividades sean contrarias o vulneren los Derechos Humanos.

— Personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el período impuesto en la correspondiente sanción.

— Las personas jurídicas, siempre que discriminen por razón de sexo en el proceso de selección o participación de sus miembros.

— Personas físicas que hayan sido condenadas por delitos de violencia de género, corrupción, delitos de sangre, acciones terroristas, así como aquellas que estén inmersas en procesos judiciales alrededor de los delitos mencionados anteriormente.

EK\CV GAO-I-2023-06875

— Estatuko edo Autonomia Erkidegoko Administrazio osoko goi-karguak betetzen dituzten pertsonak, ezta udalbatzako kideak edo udaleko konfiantzazko karguak ere, egoera horrek irauten duen bitartean.

*5. artikulua. Hautagaiak aurkezteko modua, lekua eta epea.*

Hautagaitza udalak berariaz prestatutako formulario bidez aurkeztu beharko da.

Elektronikoki edo ZU! Zure Udala - Arreta zerbitzuan.

Epea: martxoaren 1etik 30era.

*6. artikulua. Hautagaien artean omendua aukeratzeko prozedura.*

1. Udalak, Kultura saileko aholkulari juridikoaren txostenaren bidez, jasotako proposamenak ordenantzak dioena betetzen duela ziurtatuko du.

2. Bozeramaileen batzarrak gutxienez bi hautagai eta gehienez hiru, aukeratuko ditu. Erabakia aho batez hartu beharko da.

3. Ausaz aukeratutako herritar batzordeak aukeratuko du omendua 3 proposamen horien artean.

Omendu bakarra aukeratuko dute, nahiz eta salbuespenez bat baina gehiago aukeratzerik izango duten, izaera bereko bi eragile daudenean kasu.

Aukeraketa prozesua maiatzean amaituko da.

*7. artikulua.*

Ausaz aukeratutako herritarren batzordearen erabakia Udalbatzara eramango da, hain zuzen honek izendapenaren berri izan dezan.

*8. artikulua.*

Ezin izango dira herritar batzordeko kide izan:

— Errenteriako Udaleko hautetsi edo kargu publikoak.

— Proposamen egileak.

— Omendu izateko hautagaiak.

*9. artikulua. Herritarren batzordeko kideak.*

Batzordekideak izendatzeko ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatuko da, hau da, sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkaritza izango dute.

Batzordekideek ez dute ordainsaririk jasoko. Hala ere, herriko jaiei lotutako ekimenetan parte hartzeko aukera eskainiko zaie.

Prozesua bukaturik eta herriko festak iraganik, Ausazko Herritar Batzordeak bere jarduera amaitutzat emango du.

*10. artikulua.*

1. Udalaren idazkaritza Nagusiak erregistro batean jasota edukiko ditu omenaldia egin zaien erakundeen edo pertsonen izenak, baita saria emateko aintzat hartutako merezimenduak eta sariaren data ere. Erregistro horretan, froga agiriak tarteko, saritutako erakundeak edo pertsonak inskribatuta geratuko dira, saria emandako dataren araberako ordenan.

2. Errenteriako Udaleko Kultura departamentua arduratuko da ordenantza honen prozedura eta garapena bermatzeaz.

3. Alkateak, ebazpen bidez, bozeramaileen batzordeak aho batez adostutako proposamena egin ondoren, eta Udaleko kultura sailak dagokion txosten teknikoa egin ondoren, ordenantza honen xede den omenaldi-saria kendu ahal izango die muturreko neurri hori kentzeko moduko hutsegiteak edo delituak egin dituztenei, saria emandako data kontuan izan gabe. Horrelakoetan,

— Las personas que ocupen altos cargos en la Comunidad Autónoma o en la Administración del Estado, corporativos o cargos de confianza del Ayuntamiento, en tanto subsistan estas circunstancias.

*Artículo 5. Forma, lugar y plazo de presentación de candidaturas.*

La candidatura deberá presentarse mediante formulario habilitado al efecto por el Ayuntamiento.

Electrónicamente o en el Servicio de Atención - Zu! Zure Udala.

Plazo: del 1 al 30 de marzo.

*Artículo 6. Procedimiento para la elección entre las candidaturas de la persona o entidad homenajeada.*

1. El Ayuntamiento, mediante informe emitido por la/el asesora/o jurídica del departamento de cultura, comprobará que las propuestas recibidas se ajustan a lo establecido en la ordenanza.

2. La Junta de Portavoces elegirá como mínimo dos candidaturas y hasta un máximo de tres. El acuerdo deberá ser adoptado por unanimidad.

3. Una comisión ciudadana elegida aleatoriamente escogerá a la persona o entidad homenajeada de entre las 3 propuestas.

Elegirán una única homenajeada, aunque excepcionalmente podrán elegir a más de una, como en el caso de que se trate de dos agentes de la misma naturaleza.

El proceso de selección finalizará en mayo.

*Artículo 7.*

El acuerdo de la comisión ciudadana elegida por sorteo será elevado al Pleno para su conocimiento.

*Artículo 8.*

No podrán formar parte de la comisión ciudadana:

— Cargos electos o públicos del Ayuntamiento de Errenteria.

— Proponentes.

— Candidatos o candidatas al homenaje.

*Artículo 9. Miembros de la comisión ciudadana.*

Para la designación de las y los miembros de la Comisión se aplicará el principio de representación equilibrada, es decir, personas de cada sexo estarán representadas al 40 %.

Las y los miembros de la Comisión no percibirán retribución alguna. No obstante, se les ofrecerá la posibilidad de participar en iniciativas relacionadas con las fiestas patronales.

Finalizado el proceso y pasadas las Fiestas Patronales, la Comisión Ciudadana dejará la actividad que se le encomendó.

*Artículo 10.*

1. La Secretaría General del Ayuntamiento conservará un registro en el que se inscribirán los nombres de cada una de las entidades o personas homenajeadas, una relación de los méritos que motivaron la concesión así como la fecha de la misma. En dicho registro deberán ser inscritas, por orden cronológico de concesión todas aquellas entidades o personas homenajeadas de las que se tenga constancia documental.

2. El departamento de Cultura del Ayuntamiento de Errenteria, será el encargado de garantizar el procedimiento y el desarrollo de la presente Ordenanza.

3. La alcaldesa/el alcalde mediante resolución, previa propuesta de la junta de portavoces acordada por unanimidad y precedida del correspondiente informe técnico del departamento de cultura del Ayuntamiento, podrá privar de la distinción de la que es objeto esta ordenanza, cualquiera que sea la fecha en que fue concedida, a quienes incurran en faltas o delitos que

EK\CV GAO-I-2023-06875

Ohorezko Liburutik ezabatuko dira. Erabakia aho batez hartu beharko da.

4. Saria emateko bezalaxe, omenaldi-saria kentzeko proposamena bozeramaileen batzordeak eztabaidatuko du, eta, ondoren, Udal Batzarrari igorriko zaio erabakiaren berri izan dezan.

5. Ordenantza hau indarrean sartu eta 3 urtera errebisio sakona egingo da, bertan jasotakoaren inguruan.

*Xedapen indargabetzaile bakarra.*

Ordenantza honek indargabetuko du indarrean dagoen 2006. urteko «Herriko Jaietan Omenaldi sariak emateari buruzko ordenantza arautzailea», Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2006ko uztailaren 4, 126. zenbakian argitaratu zena.

*Azken xedapen bakarra.*

Indarrean sartzea: Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Errenteria, 2023ko irailaren 18a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketa ordezkaria. (6875)

aconsejen la adopción de esta medida extrema, lo que supondrá la cancelación del asiento en dicho registro. La decisión se tomará por unanimidad.

4. Al igual que en la concesión, la propuesta de privación de esta distinción será deliberada en el seno de la junta de portavoces y elevada posteriormente a Pleno para su conocimiento.

5. A los 3 años de la entrada en vigor de la presente Ordenanza se realizará una revisión profunda de lo recogido en la misma.

*Disposición derogatoria única.*

Esta ordenanza deroga la vigente «Ordenanza reguladora de la Concesión de Distinciones en las Fiestas Patronales», publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 126, de 4 de julio de 2006.

*Disposición final única.*

Entrada en vigor: La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de la publicación de su texto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Errenteria, a 18 de septiembre de 2023.—La delegada de Organización, Alazne Korta Zulaika. (6875)

EK\CV GAO-I-2023-06875